

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak eta Enpresarien Konfederazioak 50 enpresek ingurumenaren arloan hartutako konpromisoa aintzatetsi dute

Enpresa bakoitzeko ordezkariak diploma bana jaso dute karbonoaren aztarna eta industriarekin lotutako ohitura onei buruzko jardunaldi batean

Jueves, 24 de noviembre de 2011

Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Enpresarien Konfederazioak 50 enpresa txiki eta ertainek 2011. urtean ingurumenaren arloan hartutako konpromisoak aintzatetsi dituzte gaur, Lourdes Goicoechea Zubelzu Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen kontseilaria eta José Antonio Sarría Terrón Nafarroako Enpresarien Konfederazioko

Lehendakariaren parte-hartzea izan duen jardunaldi batean. Neurriok [Empresa eta Ingumena](#), programaren baitan hartu dituzte, ikuskaritza eta ingurumena hobetzeko planen bidez, eta, aurten nobedade gisa, baita karbonoaren aztarna kalkulatzeko emisio inbentarioen bidez ere.

Enpresa bakoitzeko ordezkariak diploma bana jaso dute karbonoaren aztarna eta bere kalkulua eta ingurumenarekin lotutako ohitura onei buruzko jardunaldi batean.

Enpresa eta Ingurumena programa, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Enpresarien Konfederazioak -Nafarroako Ingurumen Arloko Baliabide Zentroa Fundazioaren bidez (CRANA)- sustatua, 2004. urtean jarri zen abian, lurralde eta sektore ezberdinetako enpresarien elkarrekin, ingurumen aholkulariekin eta beste hainbat erakunderekin elkarlanean. Harrezkero, 362 enpresek egin dute ingurumen ikuskaritza eta 120tik gorak ezarri dute ingurumena hobetzeko plana. Era berean, 200 teknikari eta zuzendari baino gehiagok jaso dute prestakuntza eta 3.000 enpresa inguruk jaso dute aldizkako informazioa programaren baitan burututako proiektu eta materialen inguruan. Europar Batasunak 2.829.723 eurorekin finantzatu du egitasmoa.

2011. urtean aintzatetsitako enpresak

Ingurumen ikuskaritza egiteagatik: Autocares Felix Gastón; Camping



Goicoechea kontseilaria eta CENeko lehendakaria eta José Antonio Sarría Terrón Nafarroako Enpresarien Konfederazioko ordezkariak.

Etxarri ; Canteras Aldoyar; GH Guerra Manutención Guema,; Health Care Oihana; Heradio Molinero; Lus Hermanos; Maderas Pikabea; Mecanizados Alsasua; Pavimentos y Revestimientos Navarra; Talleres Arbiol, Tesicnor; Chipala Medioambiente; Hotel Tximista; Ate Asesores.

Ingurumena hobetzeko plana burutzeagatik: Bolsas Osés; Carpintería Aluminios Tafalla; El Caserio; Electrificaciones Navarra; Huici Leidan; Industrias Navarras de Precisión(INAPRE); La Estellesa; Licores Baines; Talleres Enpa; Tasubinsa; Tecnoem 97; Viticultura y laboratorios enológicos; Tecnoenpol HM; Imprenta Jornada; Ochoa Maquinaria; Ferralla Gastón; Camping Lizarra/ Seirak Bat; Auto Ega; Automóviles marco; Talleres Aysovel.

Karbono aztarna kalkulatzeagatik: Aunditrans; Bodegas Julián Chivite; Ega Informática; Iparpet Recycling; Navarra de Estampación e Inyección; Recuperación Ambiental; Chipala Medioambiente; Soterna; Bodega Palacio de Azcona, Navayerri ; Zertan ; Gráficas Estella; Tenerías Omega; Renolit Hispania; BSH.